ASTEKARIA | 2021eko ekainaren 4an | XXV. urtea | USURBIL | 868. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

noaua

Ucinek Udalaren aurkako errekurtsoa aurkeztu du

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus Sutegin izango dira igandean

Zirimaran matrikulatzeko garaia da

Argazkia: Hitz Aho

Miren Ros, aditua eta dinamizatzailea:

"Hitz egin dezagun beste gurasoekin eta adostu dezagun noiz erosiko diegun telefono mugikorra"

FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK
zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA
943 36 21 63 (24 orduz)
www.funerariagonzalez.es

noaua
jarraitu gure sare sozialak
facebook
Instagram
twitter
noaua
www.noaua.eus

USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA
CIFP USURBIL LHII
AURREMATRIKULA
Maiatzak 31 - Ekainak 18
Administrazioa eta Kudeaketa
Energia eta Ura
Instalazioa eta Mantenua
Fabrikazio Mekanikoa
Elektrizitatea
STEAM
ERASMUS +
DUAL
ETHAZI
Lan Poltsa
Bolsa de Trabajo
Hartu hitzordua!!!
943 364600
www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

“Elkarrekin, herri bezala, erreferendumaren alde”

Usurbilgo Sarek eta LABek ‘Hamaika Gara’ ekimenarekin bat egin dute. Argazkiak: Gure Esku.

Usurbilgo Gure Esku taldeak erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxikimenduak batzen jarraitzen du. “Gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auziei buruz erabakitzeko eskubide osoa dugulako eta sinestuta gaudelako indarrak batzen baditugu, lortuko dugula beharrezko tresnak geureganatzea”. Indarrak batzeko ahaleginean, norbanakoen sinadurez gain, herriko hainbat eragileren atxikimendua ere ari dira jasotzen. “Argi dugulako herri bezala aurrerapauso eraginkorrak egin nahi baditugu, ezinbestekoa dugula elkarrekin, herri bezala ekitea: herritarrak, eragileak eta erakundeak eskutik helduta”.

Laburrean

174,38raino murriztu da intzidentzia-tasa

Iragan aste osoan 6 kasu atzeman zituen Osasun Sailak Usurbilen. Halere 174,38raino murriztua zuen intzidentzia koronabirusak udalerri honetan astearte an. Eremu horian egoten jarraitzen dugu.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Urrats berriak Emakumeen Etxerantz

Kalezarko Pelaioenean egoitza izango duen egitasmoaren baitan orain arte emandako pausoak berrikusi eta datozen urratsak definitzeko bilera deitu du Udalak ostegunerako (ekainak 3) 18:00etan Potxoenean.

noa.ua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaua.eus

Usurbilgo Udala
Euskal presoak
Euskal Herrira!

Gipuzkoako Foru Aldundia

Alazne Arruti Bengoetxea

Mugak eta mugarriak

Maiatzarekin batera, berri zelebre samar bat irakurri nuen egunkarian. Antza, Belgika eta Frantziatik bolo-bolo ibili zen gaia, eta halako garrantzia hartuta, niganainoko bidea ere egin zuen kasualitatez.

Besteak beste, zurrunbiloaren eragile eta protagonista, Valoniako (Belgika) nekazari bat zen. Erraz irudikatu nuen gizona eta haren ingurua, lasai antzean esnatzen. Oilarren bat orduantxe kukurrukuka hastear zela, egunero moduan. Goizaldean jaiki eta baserriko lanei ekin aurretik, katilukada bat kafesne berotu eta zurrupaka edaten hasiko zen akaso. Abia hartu eta egin beharrekoen zerrenda mardulari hozkatzeko prest jaikiko zen, bart soberan geratutako ogia txigortzeko konbentzimenduaz. Baina egun hark, izango zuen berezitasunen bat. Aspaldidanik bere lana oztopatzen zuen gaiari irtenbidea emateko erabakiz iratzarriko baitzen arrazoiren batengatik. Eta gehiago atzeratu nahi ez zuen egiteko berri bat gehitu zuen gizonak bere zereginen artean.

Aipaturiko oztopoa, mardul askoa zen gainera. Duela askotik (1819 urtetik, zehazki) 150kg-ko harritzar batek oztopatzen baitzion jarduna.

"Landa eremuetan bizi edo lan egin izan dutenek, ezagutuko dute harriok gurean urte luzez izan duten presentzia".

ALAZNE ARRUTI

"Etxeko ondorengo garen alaba eta semeak, bertako mugarrien berri jakin gabe kaletartu gara"

Eta traktorearen erabilera mugatzen zion harri koskorraz nazkaturik, bere lur-eremutik kanporatzeko erabakia hartu omen zuen. Eta kementsu, huraxe lekualdatu eta basoaldean utzi zuen. Ekintza sinple eta inozente hark, zer nolako garrantzia izango zuen imajinatu gabe.

Eta batek daki zenbat denbora igaroko zen ordurako. Han inguruan pasieran ibiltzeko ohitura zuten historialari afizionatu batzuk, harri hura ezagutu eta zur eta lur geratu arte, ez baitzen aditzera eman eginiko azaña. Euren harridurarako, 1815ean, Napoleonen Waterloo-ko porrotaren ostean, Frantzia eta oraindik osatzear zegoen Belgikako muga birdefinitzeko erabili zen mugarrietako bat, lekuz kanpo topatu zuten. Eta une horretantxe, baten batek euren estatu zen Belgikaren alde eta Frantziaren kontra, 2,29 metroko hedapena eragin zuela jabetu ziren.

Dena den, badirudi gertakaria, anekdotatzat hartua izan dela inguruan. Eta horren erakusgarri da, estatu buruek txio eta mezu umoretsuen bidez plazaratu izana. Baina noski, nekazariari eta udal arduradunei, egoera bere onera itzultzeko eskaria egin diote, kontrakorik bada, prozesu legal bat irekitzeko aukera baztertu gabe.

Eta nire baitan hasi naiz pentsatzen gure inguruez. Muga batzuk, geronek eta guregan ezarritakoak diren arren, zanpatzen dugun paisaia ere, banaketetan oinarritzen baita. Landa eremuetan bizi edo lan egin izan dutenek, ezagutuko dute harriok gurean urte luzez izan duten presentzia. Mugarriak, udalerri bakoitzaren mugak non dauden adierazteko jartzen diren harri bereziak dira. Maiz, mugakide direnen inizialak edota bestelako irudiak grabatuta izaten dituztenak. Baina denbora eta ahanzturaren poderioz, ez dira beti horren errazak izaten aurkitzeko. Erreka zuloetan tinko zutituagatik, tontorretan denbora luzez euren lekua egin izanagatik, otez eta abarrez estaltzen baitira sarri. Eta denboraren higadurari euren kasa egin behar izaten diote aurre.

Eta halaxe etorri zait ondora, azkenaldian behin eta berriz familia otordutan aipatu izan dugun gaia. Eta barregarria iruditu zaidan anekdota horren mamiak, familiako baserrian halako pisua baduela oroitarazi dit. Izan ere, etxeko ondorengo garen alaba eta semeak, bertako mugarrien berri jakin gabe kaletartu gara. Eta etxean, arduratzen hasiak dira. Txikitan, gurasoengandik jasotako erreferentzia soil eta sendo horiek kolokan ikusten baitituzte. Eta oraindik, adostu ez dugun egunen baten zain jarraitzen dute, esperoan.

Alazne Arruti Bengoetxea | Ainhoa Azpirotz Eizmendi | Ugaitz Agirre Zapirain | Luis Aranalde

Komikia

Zinegotzi berria du udalbatzak

Maiatzaren 26an bete ziren bi urte 2019ko udal hauteskundeak ospatu zirenetik; 2023ra arteko lau urteko legealdia erdibidera heldu den honetan, kargu hartze berri bat izan zen udal taldeek maiatzaren 27an egin zuten udalbatzarrean. Apirileko osoko bilkuran, arrazoi pertsonalengatik Aroa Etxeburua Ugartemendiak EHBilduren zinegotziak utzitako kargua hartu zuen Ainhoa Arrozpide Landak.

Ainhoa Arrozpide Landak Aroa Etxeburua Ugartemendiaren tokia hartu du.

Dion estima handia adierazi, "militante eta ekintzaile nekaezin" gisa aurkeztu zuen Arrozpide Agurtzane Solaberrieta alkateak. "Usurbil hobea lortzeko zeregin horretan, onena emateko prest" agertzeagatik, bere "konpromiso eta eskuzabaltasunagatik" eskerrak helarazi zizkion.

Kargua utzitako Aroa Etxeburua ere gogoan hartu zuen alkateak, ezagutu izanagatik zorte oneko agertzearekin batera, "onena opa diogu" adierazi zion.

AINHOA ARROSPIDE, ZINEGOTZI BERRIA

Udal gobernu taldean "proiektu, gogo eta anbizio asko" sumatu dituela dio

Martxa onean datorren trenera

Hitz hauekin bat egin zuen zinegotzi berriak. Bidaia zaletua izanik, "martxa onean" datorren trenera igotzera noa" gaineratu zuen. Oso emankorra izan eta "inor atzean uzten ez duen trena" zela nabarmendu zuen. Geroz eta bidaiari gehiago dituena; Txokoalde eta Santueneko bizilagunak izan zituen gogoan bereziki. Inguruneotatik "herritar gehiago igoko direla dirudi". Udal gobernu taldean, "proiektu, gogo eta anbizio asko" sumatu dituela zioen Arrozpidek.

Udal gobernu taldeko kide izatea ohoretzat jo zuen arren, "trenaren gidaria", alkatea goraipatu nahi izan zuen, Solaberrietaren esker hitzak bueltatuz. Agurtzanek kargu hartze ekitaldian esandakoekin bat egin zuen Arrozpidek. Legealdiko gidalerro nagusiak ekarri zituen gogora; "behetik gora" lanean aritzea, "Usurbildik Euskal Herriaren norabidean", burujabetzaren bidea jorratuz, feminismotik, justizia soziala ardatz, edota presoak etxeratzearen alde lanean.

Urduri zela adierazi zuen Arrozpidek, ingurukoek adierazitako babesa gogoan, "gauzak ondo ateratzeko" saiakera argia egiteko asmoz hartu duela zinegotzi kargua.

Oposizioko udal taldeei (EAJ, PSE) "eskua luzatzen dizuet" adierazi zien. Eta aipamen berezia izan zuen, EAJ-ko zinegotzi batentzat; osaba duen Carlos Perez Fraisolirentzat. Gai batzuetan ados, besteetan desados egongo diren arren, errespetuz jokatzeko konpromiso irmoa agertu zuen. "Irakasgai bat emateko gai izango garela" uste duela adierazi zuen Arrozpidek. Ongi etorria eman zioten oposizioko udal taldeek.

Ika-mika

Aspaldi kotxeak ziren, orain bizikletak

Kaixo, denoi: Santuenea auzotik Txokoalde auzora doan erriberako bidetik gero eta arazo gehiago ari dira sortzen. Kotxeak ez direnean, bizikletak dira. Azken hauekin gero eta okerrago, gainera. Asteburuetan ziklista gutxiago egon arren, beti aurkitzen da baten bat bere "marka" hobetu nahian edo, eta bide honetan horrelako abiaduran ibiltzea ez da oso segurua. Umeren bat ez bada, txakurren bat gurutzatzea dauka eta istripua, abiadura horietan, ez da txikia izango.

Bi aste badira ziklista batekin arazo bat izan genuela, abiadura eta distantzia zela medio... Eta egunen batean gehiagora iritsiko den beldurrez, horrexegatik egin dut idatzi hau.

Badakit zaila izango dela hau dena kontrolatzea, baina gaiari buelta bat ematea eskatuko nizueke, ikusteko zer nolako egoerarekin aurkitzen garen Santuenea auzoko erabiltzaileak. Eta ez naiz bakarra... Hemen auzokoekin hizketan, jende gehiagok izan du arazo honekin zerikusirik duen egoeraren bat eta nazkatzen hasiak gaude "Olinpiadetako ziklista hauekin".

Taldean doaz... Azkar... Inongo tinbrerik gabe... Eta badirudi legeak babestuta (edo ez), baina bidea beraiena dela dirudi: txakurrekiko kexuak... Ondo-ondoan derrapatuz pasatzen direnak... Eta abar. Asteburuetan gutxixeago diren arren, astean zehar ere ikusten dira "marka lehertzera" doazenak, baina asteburuetan ziklista kopurua izugarria da eta abiadura izugarrian igarotzen dira.

Nahikoa daukagu N634 "belodromo bat" izatearekin... Orain zer hasiko dira, baita bidetxurretatik ere? Non ibili eta paseatuko dugu herritarrok? Nazionaletik baita ere? Edo haiek kaleak erabiltzeko, guk gimnasio batean egin beharko dugu oinez?

Arren, bueltatxo bat eman egoerari. Ordutegiak jarriz edo nolabaiteko zig-zag batzuk ezarriz haien abiadura murrizteko, ez dakit... Baina zerbait.

Ez nuke nahi biharko egunean idatzi hau erabili behar izatea nolabaiteko desgrazia bat salatu zela erakusteko. Arren, kasu egin ahal bezain laster eta ea denon artean, eta denontzako, ezartzen ditugun arau batzuk, denak gustura ibiltzeko.

Milesker zuen arretagatik eta ea denon artean lortzen dugun gure herritik lasai eta segurtasunez ibili ahal izatea, inor inorekin haserretu gabe eta inor zauriturik irten baino lehen.

David Torcida Olasagasti

Ucinek Udalaren aurkako auzi errekurtsoa aurkeztu du

Arrazoiak ez dituzte ezagutzen. Dakitena da, epaitegitik espedientea igortzeko eskaera jaso dutela. Abokatua eta prokuradorea izendatu behar izan ditu Usurbilgo Udalak, Ucin lantegiak aurkeztu dion administrazioarekiko auzi errekurtsoari erantzuteko. "Penaz hartu dugu erabakia", zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak maiatzaren 27ko udalbatzarrean. Aurreko udal gobernu taldeen antzera, egungoa ere sarritan bildu dela zioen Osinalde industriagunean kokatua dagoen lantegiarekin. Elkarlanerako deia egin arren, "isiltasuna jaso dugu".

"Penaz hartu dugu erabakia", zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak maiatzaren 27ko udalbatzarrean.

Partikula gehiagoren isurketa kontrolatzeko eskaera

Ucinek Udalaren aurka aurkezturiko administrazioarekiko auzi errekurtsoa otsailaren 9ko udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren harira dator. Ucinen jarduera baimena eguneratu beharra zegoen. Ingurumen Baimen Bateratua eguneratzeko Eusko Jaurlaritzak zehazturiko baldintzak zorroztea erabaki zuen Udalak, tokiko erakunde honek dituen "eskumenak baliatuz".

Baldintza berriak, neurri zorrotzagoak finkatzea eskatzen zion Udalak aipatu lantegiari. Eusko Jaurlaritzak lantegi honetatik airera isurtzen den partikula bat neurtzeko betebeharra ezartzen zion; Udalak aldiz "lau partikula ezberdin uneoro neurtzeko betebeharra".

IKERKETA

Kataluniako UPC unibertsitateko ikerlariek egina duten lana aurkeztuko dute ekainaren 29an, 19:00etan Sutegin

"Kezka partekatua"

Errekurtso honen aurrean, udal gobernu taldetik duela astebeteko udalbatzarrean adierazten zutenez ordea, "neurriak hartzea ezinbestekoa" iruditzen zaio kutsadura murrizteko, are gehiago, herrian "kezka sortzen duen gaia" izanik. Alkateak osoko bilkuran bat egin zuen kezka horrekin. "Kezka partekatua" da.

Are gehiago bizi dugun ezohiko testuinguru honetan. "Pandemiak agerian utzi duen krisietako bat" baita udal gobernu taldearen esanetan, krisi ekologikoa. Klima aldaketari aurre egiteko mundu mailako erronka betetzeko tokitik eragitea ezinbestekotzat jotzen du udal gobernu taldeak. "Ezinbestekoa da kutsadura murrizteko neurriak hartzea", herritarrak, enpresak eta Udala elkarlanean arituta. Bide horretan sakontzeko deia egin zioten Ucin lantegiari.

Airearen kalitateari lotutako azterketaren aurkezpena

Usurbilgo jarduera nagusiek airearen kalitatean duten eragina ezagutzeko Kataluniako UPC-ko unibertsitateko ikerlariek Udalaren enkarguz egina duten lana aurkeztuko dute ekainaren 29an 19:00etan Sutegiko auditorioan. Ekitaldira joateko aurrez eman beharko da izena, usurbilkultura.eus atarian.

2022an ere, uztailaren 2a jai

Berriki Eusko Jaurlaritzak urte berrirako jaien egutegia onartu zuen. Gogoan izan, jai egun berri bat izango du datorren urteak; irailaren 6a, Elkano Eguna. Jai egunoz gain, beste festa egun bana finkatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Usurbil mailakoa Udalak. Maiatzaren 27ko udalbatzarrean, azken urteon ildo beretik, 2022. urtean ere larunbatez egokituko den uztailaren 2a herriko jai eguna izendatzea erabaki zuten udal taldeek aho batez, Santixabel Eguna hain zuzen. Covid19ak eragindako osasun krisialdia tarteko, iaz eta 2021 honetan ez bezala, urtebete barru "benetan ospatzeko aukera izatea espero dugu", Agurtzane Solaberrieta Mesa alkateak adierazi zuenez.

2021eko aurrekontu exekuzioa, martxa onean

Hiruhilero udal aurrekontuen exekuzio mailaz berri ematen du udal gobernu taldeak, osoko bilkuran. "Txukun doa momentuz", adierazi zuen Xabier Olano udal kontuhartzaileak, maiatzaren 27an egin zuten udalbatzarrean. Bere txostenak dioenez, %14,64ko zor bizia du Udalak. "Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen du".

Usurbilgo PSE-EE-k plastikoaren kudeaketa ona txalotu du

Hondakin plastikoak arazo handiak eragiten ditu ingurumenean. Konponbidea plastiko hori birziklatzetik letorke. Patxi Suarez PSE-EEko zinegotziak Egutegui Reciclados enpresa zoriondu nahi du, berrerabilpenaren alde egiten ari den lanarengatik. "2020an, Egutegui Recicladosek 6.000.000 kilo plastikoen %80a tratatu zituen, lehengai bihurtuz. Bota beharrean, bigarren bizitza eman zioten", azaldu du zinegotzi sozialistak. Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundia zoriondu nahi du, eta bereziki Jose Ignacio Asensio Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatua, birziklapenaren eta ekonomia berdearen sektorea indartzearen alde egindako apustuagatik. "Gipuzkoako etorkizuneko erronka hondakinen kudeaketa egokia izango da, eta sektore hau aberastasuna eta enplegua sortzeko aukera-iturri bihurtzea. Gipuzkoako birziklatze sektorearen tamaina bikoiztuz, eta 2030ean 10.000 enplegura iritsiz".

Erraustegian industria hondakinak tratatzeko emandako baimenari helegitea

Duela urtebete, 2 langile erahil zituen hondamendi gune bilakaturiko Zaldibarko zabortegiko errealitatea Zubietako erraustegira ekartzea saihestea. Xede horrekin helegitea aurkeztekoa zen maiatzaren 28an Usurbilgo Udala, Eusko Jaurlaritzak Zubieta gainean industria hondakinak tratatzeko emandako baimenaren aurka. "Zaldibarren gertatukoari ateak itxi nahi dizkion helegitea" dela nabarmendu zuen alkateak hilaren 27ko udalbatzarrean.

Otsaila hasieran Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiak hedabideetan eginiko iragarpenaren harira dator Udalaren helegitea. Urtebete lehenago behera etorritako Zaldibarko zabortegira garraiaturiko industria hondakinak beste norabait eramateko asmoez mintzatu zen. Egun batzuk beranduago, otsailaren 12an Ingurumen Baimen Bateratua eguneratzen du Eusko Jaurlaritzak hondakinak Zubietako erraustegian tratatu ahal izateko. Erabaki horren aurkakoa da Udala iragan astean aurkeztekoa zen helegitea. Ebazpena "nulotzat jotzea" eskatzen dute. "Onartuko ez balitz, epaitegira jotzeko erabakia du Udalak".

"Ebazpena ez dago nahikoa arrazoitua"

Ebazpen horretan aipatu baimenean txertaturiko berrikuntza honek "aldaketa e–sanguratsurik ez" dagoela dio Jaurlaritzak. Baieztapen horrekin ez dator inolaz ere bat Usurbilgo Udala; baiezkoan da, funtsezko aldaketa bat onartu dutela.

Legeak dioena ekarri zuen gogor alkateak. Aldaketa ez funtsezkotzat jo liteke, baimeneko aldaketak "isuriak aldatu edo murrizten dituenean". Aldiz isuriak handitzea bai, funtsezko aldaketa litzateke, herritarrengan edo ingurumenean "eragin nabarmena izan badezake". Eta horixe litzakete Udalaren esanetan, Zubietako erraustegiaren kasua, "jatorri industrialeko hondakinak erraustu nahi direlako, tartean, arriskutsuak direnak". NBE-ren arabera "minbizi sortzaileak" izan eta "gehigarri kimiko oso arriskutsuak" dituzten plastikoak esaterako.

Erraustegia hiri hondakinak tratatzeko eraiki eta martxan jarria egonda, "mota honetako hondakinak tratatu eta erretzen hasi nahi badira" bai, "bagaude funtsezko aldaketa baten aurrean", Solaberrietak zioenez. "Kautela legearen printzipioa aplika" dadila eskatzen dute.

Udalak baditu helegite hau aurkezteko argudio gehiago ere. 2018ko Europako hondakinen zuzentarauaren arabera, industria hondakinen tratamenduen kudeaketa pribatua da. Hiri hondakinen kudeaketa aldiz publikoa. Honenbestez, "Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) ez du eskumenik hondakinok kudeatzeko". Hauek argudioetako batzuk, helegite hau aurkezteko "arrazoi gehiago badira" alkatearen esanetan. Ebazpena aldiz bere esanetan, "ez dago nahikoa arrazoitua".

Erraustegia hiri hondakinak tratatzeko eraiki zen baina industria hondakinak erretzeko atea zabaldu nahi du Eusko Jaurlaritzak.

FUNTSEZKO ALDAKETA

"Industria- hondakinak erraustu nahi dira, tartean, arriskutsuak direnak"

"Migrazioari maskarak erauzten" proiekzioa Santuenean

Usurbilek jasotako bi migrazio prozesu nagusiak ardatz dituen Usurbilgo Udalak sorterri ezberdinetako herritarren lekukotzekin osatutako "Migrazioari maskarak erauzten" dokumentala, martxoa amaierako Mundualdian aurkeztu zutena, Santuenean proiektatzekoak dira orain. "Prozesu batean zein bestean, Santueneak hartu du etorkin gehien, eta horrek erabat baldintzatu du Santueneaz herritarrek duten kontzientzia". Euskaraz eta gaztelaniaz entzun ahalko diren herritarren hitzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa Santuenea Kultur Elkarteak proiektatuko du ekainaren 12an 19:30ean auzoko frontoian, santuenearrentzat.

OinHerri taldearen aurkezpena

Usurbil, OinHerri herri hezitzaileen sareko kidea da. Usurbilen sortu den taldea jendaurrean aurkeztuko dute ekainaren 9an 18:30ean Sutegin. Bertara joan nahi duenak aurrez eman beharko du izena usurbilkultura.eus atarian. "Beraien printzipioak zein lan ildoak ezagutzeko aukera izango dugu, eta era berean, Usurbilen bertan sortu den talde eragilea aurkeztu eta doluaren inguruan abiatu duten lanketaren berri emango dute".

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170 USURBIL

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Ekaineko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz *Axpi*.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

ARIES

Gutxi falta da hondartza denboraldia hasteko eta irrikitan zaude itsaso-ingurura joateko. Hileko aholkua: Erredurak, olatu arteko zilipurdiak eta hondarra gorputzeko zirrikitu guztietan: paradisua izango da!

CANCER

Tamalez aurten ere ohiko festak ezingo ditugu ospatu eta ondorioz San Juan suak beste urte betez itxaron beharko du. Hileko aholkua: Urteko gauza onak eta txarrak erre nahi badituzu, bainu-ontzia edo arraska dituzu toki aproposenak!

LIBRA

Eguraldi onak umore onez jarriko zaitu, oporrak hortxe daudelako. Hileko aholkua: Pozik egoteak ez du esan nahi lagun guztiak besarkatu eta musukatu ditzakezunik ero baten moduan. Gorde ezazu berotasun hori artaldeko immunitatea lortu arte.

CAPRICORNIUS

Etxeratze agindurik gabe, gaua berriro zure lagun kuttuna bihurtu da. Zenbat botatzen zenuen gaueko ordu txikietako xarma!
Hileko aholkua: Hurrengo eguneko begi-zuloak ere ederrak dira, gautxori!

TAURUS

Iritsi da hainbeste itxaroten ari zinen aukera. Zure bizitza ez da berdina izango hemendik aurrera.
Hileko aholkua: Artixten gaueko izarra izango zara, bai horixe!

LEO

Maskarilla bizitzan hain normala egin zaigu, batzuetan zure burua gabe ikustea arraroa egiten zaizula.
Hileko aholkua: Etxean zaudenean ispilu aurrean jarri eta begiratu ondo zure aurpegia den bezala, ez ahazteko.

SCORPIUS

Terrazetan gustura egoten zara lagunekin, baita maskarilla kendu eta jartzen ibiltzeak izugarrizko pereza ematen dizu.
Hileko aholkua: Zulo txiki bat egin musukoari pajita bat sartzeko eta lixto!

AQUARIUS

Azterketa garaiak zure onetik ateratzen zaitu, baina gauzak azken minutura arte atzeratzeko ohitura izaten duzu beti. Hileko aholkua: Urte guztian txukundu ez duzun gelak beste aste bat iraungo du dagoen bezala. Hasi zaitez ikasten behingoz!

GEMINI

Zure urtebetetzeak ospatzeko irrikitan zaude, eta egun berezia izatea nahiko duzu. Hileko aholkua: Kontuz ibili tartaren gainean jarriko dituzun kandela guztiekin, San Juan sua emango du eta!

VIRGO

Laster seme-alabek oporrak hartuko dituzte eta beti bezala zaintzaren kontuak buruhauste handia emango dizu.
Hileko aholkua: Ez, ez dut uste irakasleak ados egongo direnik ikasturtea beste hilabetez luzatzeko…

SAGITARIUS

Oso nekatuta iritsi zara udarara eta deskantsuaren beharrean zaude.
Hileko aholkua: Ez duzu tenplu budista batera joan beharrik erlaxatzera: Aranerrekako uraren murmurioak sendagarriak dira.

PISCIS

Loratu egingo zara hilabete honetan eta maitasun kontuetan zorteduna izango zara.
Hileko aholkua: Baina kontuz ibili, pertsona batzuk polenari alergia diote eta!

Telefono mugikorren erabilerari buruzko jardunaldiak Udarregi Ikastolan

Gure aukera, guk 16 proiektuaren baitan, ekainaren 9an eta 16an, goizez saio bana egingo dute Udarregi Ikastolako LH5 eta LH6ko gela bakoitzean aparatu elektronikoen erabilerari buruzko kontzientzia sortzeko. Maila horietako gurasoek ere zita izango dute gai bera lantzeko; baita DBH1eko gurasoek ere. Ekainaren 7an izango da hori, arratsaldeko 18:00etan Agerialdeko jangelan.

LH5 eta LH6ko ikasleei hitzaldiak emango dizkiete aparatu elektronikoen erabilerari buruzkoak. Oraindik mugikorrik ez duten gazteei lehen aparatu hori ahalik eta beranduen ematea izango da helburua, eta beharrezkoa ez dutela erakusten ahaleginduko dira.

LH5 eta LH6ko ikasleei hitzaldiak emango dizkiete aparatu elektronikoen erabilerari buruzkoak.

Praktika onak sustatu

Guraso bilera smartphonek eta Internetek dituzten onurak eta arriskuak aztertzeko izango da, eta aurretik ikasleekin egindako saioetatik ateratako adierazpen eta ondorio garrantzitsuenak azaltzeko; gurasoek beren seme-alabak nondik nora dabiltzan ezagutzeko aukera izan dezaten. Helburua izango da hausnarketa lan bat egitea kontzientziazioa sustatu, praktika onak zeintzuk diren ezagutu eta gazteak ze puntutan dauden jakiteko.

Saio horretako eta kontzientziazio kanpainen ondorioz, gurasoen erantzunaren arabera antolatuko dute formakuntza ikastolan irailetik aurrera. Jakin badakite DBH1eko ikasleei jada ezin zaiela mugikorra kendu, baina bai erabilera egokia zein den azaldu. Adin-talde horretan, beraz, ikasleek eta gurasoek formakuntza jasoko dute.

FORMAKUNTZA

Jakin badakite DBH1eko ikasleei jada ezin zaiela mugikorra kendu, baina bai erabilera egokia zein den azaldu. Adin-talde horretan, beraz, ikasleek eta gurasoek formakuntza jasoko dute

DBH1eko gurasoentzako formakuntza-saioak

Ekainaren 7ko bilera guraso guztientzat da, eta horren erantzunaren arabera ikusiko dute hurrengo urratsak noiz eta nola eman. DBH1eko gurasoentzako formakuntza-saioen egutegia, esate baterako.

Bi orduko hiru saio lirateke. Lehenengoan, kontzientziazioa eta hausnarketa landuko lituzkete pantaila ezberdinen erabileraren inguruan hausnarketa bultzatzeko. Helduek zer-nolako erabilpena egiten duen pentsarazi, kontzientzia piztu eta erabaki batzuk hartzera animatuko dituzte. Bigarren saioa sare sozialei eta bideojokoei buruzkoa izango litzateke, helduen erabilpenean oinarrituko da, norberaren hausnarketa eta erabakiak hartzeko gaitasuna bultzatzeko. Eta azkenik, gurasoekin interneteko arriskuak izango dira hizpide. Interneten arriskuak aztertuko dituzte, eta haiengandik nola babestu azalduko zaie.

Proiektuan parte hartuko duten guraso guztiei seme-alabei buruzko informazioa emango diete, geletan egindako saioen emaitzak eta ondorioak azaldu eta baliabideak eskura jarriko dizkiete.

STEAM prestakuntza osagarriak Lanbide Eskolan

DBHko gero eta ikasle gehiago ari dira Lanbide Heziketa aukeratzen, gerora Unibertsitate ikasketak egin nahi dituztenak. Usurbilgo Lanbide Eskolak ikasle horiei unibertsitaterako bidean prestakuntza osatzeko aukera eman nahi die. Helburua, ikasleen artean STEAM gaitasunak (zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematika) indartzea da, etorkizuneko unibertsitate-prestakuntzara egokitzeko.

Argibideak, eskolan bertan

Maiatzaren 31tik ekainaren 18ra bitartean izango da zikloetan izena emateko epea. Usurbilgo Lanbide Eskolan izena emateko edota edozein zalantza argitzeko, 943 364600 telefonora deitu, adkomunikazioa@lhusurbil.eus helbide elektronikora mezu bat bidali, edo www.lhusurbil.eus webgunea kontsultatu.

“Hitz egin dezagun beste gurasoekin eta adostu dezagun noiz erosiko diegun telefono mugikorra”

Zarauzko Ikastolan hartutako bideari jarraiki, “Gure aukera, guk 16” proiektua jarri nahi dute martxan Udarregi Ikastolan. Gaztetxoei lehen mugikorra geroz eta lehenago ematen zaiela eta horren aurrean hainbat gurasok agertutako kezkari aurre egin nahi dion proiektua da Zarautzen martxan jarri dutena. 16 urte baino lehen nerabeek mugikorrik ez dutela behar uste dute proiektuan lanean ari diren dinamizatzaile eta parte-hartzaileek, eta hori hala izan dadin, erramintak emateaz arduratzen dira. Miren Ros zarauztarra ari da dinamizazio lanetan eta Udarregi Ikastolarekin harreman zuzenean.

“Gure aukera, guk 16” proiektua jarri nahi dute martxan Udarregi Ikastolan.

NOAUA! “Gure aukera, guk 16” proiektua martxan daukazue Zarauzko ikastolan, eta Udarregi ere proiektu hau aurrera eraman nahian ari da. Zeintzuk dira proiektuaren helburuak?

Miren Ros: Proiektuaren helburu nagusia helduongan kontzientziak piztea da, mugikorra tresna izugarri boteretsua dela jabetzea eta honen erabilera egokiaren alde hausnarketa bultzatzea. Batzuk pentsa dezakete mugikor eta teknologiaren aurka egon gaitezkeela, baina hori ez da horrela: gu erabilpen oker baten kontra gaude. Ikusten dugunez, helduen artean erabilpen egokia ez da askotan ematen, eta gauzak horrela, nola erakutsiko diegu gure gazteei? Gu gara haien eredu. Hortarako hitzaldiak, kafe-tertuliak, bideoak… antolatzen ditugu, kontzientziazio gisa, eta bestetik, alde praktikoari ere heltzen diogu: gurasoen artean konpromisoak edo itunak bultzatuaz: gurasoak elkartu eta gure gaztetxoei lehenengo mugikor hori ahalik eta gehien atzeratzeko indarrak batu. Gure taldearen izena eta helburu praktikoa 16 urte arte mugikorrik ez erostea bada ere, hori epe luzerako erronka da; errealitatea zein den badakigu eta maila bakoitzera egokitzen gara.

MIREN ROS

‘Gure aukera, guk 16’ proiektuaren helburu nagusia “helduongan kontzientziak piztea da”

“Gure proiektuak oihartzun handia izan du”

NOAUA! Proiektu honek zer nolako oihartzuna izan du Zarautzen?

Miren Ros: Zarautzen, 2019ko apirilean hasi ginen, Salbatore Mitxelena Ikastolako 5 guraso gaiarekin oso kezkatuta geundelako. Bertan bideratzen ditudan Guraso Eskolatik atera zen taldea eta geroztik, izaera propioa du. Lehen aipatu bezala, bi ildo jarraitzen ditugu: alde batetik, kontzientziazio bidea eta bestetik, itunarena. Esan beharra dago, egun DBH1eko ikasleak direla gure “0 belaunaldia” proiektu honetan. Bertako gurasoek mugikorra erostearen erabakia atzeratzeko konpromisoa hartu zuten eta egun, maila horretako ikasle gehienek mugikorrik ez dute; horrek urtebeteko atzerapena esan nahi du eta hori lorpen handia da. Nahiz eta gure azken xedea 16 urterekin aurreneko mugikorra erostea gauza normaltzat jotzea den, pixkanaka pausoak ematea da garrantzitsua eta ahalik eta gehien atzeratzen joatea. Hobe 14 urterekin erostea 11rekin baino; hobe 13rekin 9rekin baino.

Beste herriren batean proiektua martxan jarri al duzue? Nola ari da funtzionatzen?

M. R.: Gure proiektuak oihartzun handia izan du eta beste herri eta ikastetxeetatik nondik norakoak ezagutzeko deia luzatu digute. Nire lanbidea formakuntza da, horretarako sortu nuen Bidelagun proiektua eta horren barruan, gai ezberdinen inguruan hitzaldiak eta formakuntzak ematen ditut. Mugikorren inguruan lehenago ere hitzaldiak ematen nituen eta orain, ekimen honen berri ematean, jendearengan interesa piztu da. Hernanin, esate baterako, ia herri osoa ari da inplikatzen; udaletik ere, sentsibilitate handia dago eta herri mailan gauzak antolatzen hasi dira. Tolosa, Oiartzun, Donostia, Legazpi, Antzuola, Durango, Ondarroa… herri pila hasi dira martxan. Azpeitian esate baterako, HHko gurasoek kezka handia azaldu dute txikitatik pantailen aurrean jartzen baitugu umeak eta hor gerorako hazia landatzen ari gara.

Guraso izatea ez da lan erraza. Dena den, ikasgelan lehenengo nerabeari mugikorra ematean, gainontzekoengan kutsadura efektua sortuko du, ezta?

M. R.: Bai, hala da. Guraso izatea ez da erraza eta batzuetan oso zaila egiten zaigu gure haur eta gazteei mugak jartzea. Nik beti esaten dut mugikorra erosteko erabakia, “soziala” dela; nik nire alabari pijama bat erosten badiot, etxean geratzen den kontu bat da; baina mugikor bat erosten badiot, bere inguruan eragina izango du. Eta hortaz gurasook jabetu behar dugu. Egungo gizartean bakoitza bere “rollora” dijoala dirudi sarritan, “nik nire etxean nahi dudana egiten dut”, baina gizartea hor dago, komunitatea hor dago eta gu parte gara. Askotan komunitate, auzolan hori faltan botatzen da.

“Ezinbestekoa da elkartu eta indarrak batzea”

NOAUA! Zergatik saiatu behar genuke 16 urtera arte nerabeei mugikorrik ez ematen? Benetan arazo izan daiteke haur eta nerabeen garapenean horren goiz mugikorrak eskuratzea?

Miren Ros: Neurologoek nerabeen burmuinari buruz hitz egiten dutenean, berreraikitzen ari dela esaten digute. Burmuinean garatzen den azken atala, bekoki-kortexa da eta horrek erregulatzen dituenak, besteen artean hauek dira: zentzua, ardura, irizpideak eta pultsioen kontrola. Nerabezaroan txorakeria asko egiten dira, biologikoki ezinezkoa egiten zaigulako horri guztiari eustea. Pentsa dezagun orain, guk heldu bezala, nola eusten diogun adibidez menpekotasunari; irudikatu telebista ikusten gaudela, ondoan mugikorra dugula eta mezuak jasotzen ari denaren soinuak entzuten ari garela; zenbat denbora pasatzen da guk mugikor hori hartu arte? Normalean, oso gutxi. Eta hori, gure burmuina, teorikoki behintzat, guztiz osatua dagoela kontuan izanda. Pentsatu nerabe baten kasuan, ezin dio horri eutsi.

“Eskuko telefonoarekin egiten duguna (sare sozialak, jokoak...), gu ahalik eta denbora gehien lotuta egoteko sortua da. Ikaragarria da”.

MIREN ROS

“Giltza hor dago: berdin edo antzera pentsatzen dugun gurasook indarrak batzea”

Oso tresna boteretsua da eta horren kontzientzia izan beharko genuke. Gainera, gailu horrekin egiten duguna (sare sozialak, jokoak...), gu ahalik eta denbora gehien lotuta egoteko sortua da. Ikaragarria da.

Zergatik da hain beharrezkoa gisa honetako proiektu bat sortzea? Gurasoek norbanako gisa ezin diote aurre egin “arazo” horri?

M. R.: Ezinbestekoa da elkartu eta indarrak batzea. Norbanako gisa oso zaila da honi aurre egitea; esperientziak hala erakutsi digu. Familia bakoitzean tira-bira oso gogorra eta nekeza da; aldiz, familia bakoitzak beste familia askoren babesa duela ikusten eta sentitzen duenean, askoz errazagoa da borroka horri eustea. Guraso askok esan eta eskertu digute egin izan ditugun bilerak, tertuliak... Kontzeptuak, arriskuak eta zenbait hausnarketa egiteaz gain, oso baliagarria egin zaie beste gurasoen aurpegiak ikusi eta iritziak elkarbanatzea. Bakarrik ez daudela sentitzea.

Bestalde, gaztetxoarentzat ez da hain larria mugikorrik ez izatea gelako gehienek ez badute; arazo bihurtzen da gehienek dutenean. Giltza hor dago: berdin edo antzera pentsatzen dugun gurasook indarrak batzea.

“Gure txikiak babestu behar ditugu”

NOAUA! Guraso asko benetan kezkatzen ditu seme edo alaba baztertua izateak azkena bada mugikorra izaten. Nola egin diezaiokegu aurre sentipen horri?

Miren Ros: Inork ez du bere seme/alaba baztertua gera dadin nahi, noski ezetz. Arrazoi horregatik sortu genuen taldea, sentipen horri aurre egiteko. Erantzuna oso sinplea da: hitz egin dezagun beste gurasoekin eta adostu dezagun noiz erosiko diegun mugikorra. Gauetan ateratzen hasten direnean, ideia ona litzateke gurasoek ordu bera adostea denak batera bueltatzeko, ezta? Bada mugikorra erosteko momentuarekin berdina egin dezakegu. Hala ere, ideia sinplea izan arren, ez da hain erraza aurrera eramaten. Esperientziak esaten digu oso garrantzitsua dela gurasoak elkartzea, dituzten kezkak elkarbanatzea. Askoz errazagoa da indarra taldean egiten badugu eta ez familia bakoitzak bere etxean; hor galdu dugu.

Datuak eta estatistikak egin dira haurren lehen mugikorraren adinaren gainean. Urtez urte adina beherantz doa, nola daude datuak gaur egun?

M. R.: Badirudi gero eta lehenago erosten direla mugikorrak; kasu batzuetan jaunartzeetako opari garrantzitsuena da. Egia da herri eta ikastetxearen arabera, ohitura ezberdinak daudela eta datuek 12-14 urte bitartean kokatzen dute lehenengo mugikorraren erosketa. Adin baxuegia. Bestalde, haurrak 10 urterekin hasten dira Interneten sartzen, bere gurasoen mugikorretik edo etxean dituzten beste pantaila batzuk erabiliz. Gurasook ez baditugu kontrolak jartzen, edozer ikus dezakete gure haurrek; desegokiak diren edukiak oso eskura baitaude. Kasuak ezagutu ditut 11 urterekin bideo pornografikoak ikusi eta gero ezin lorik hartu ikusitakoarekin oso urduri eta ezin ulertuta. Gure txikiak babestu behar ditugu.

Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua

B		T	S		D
S		D	A		T
	S			T	E
	D	E	B		A
D	T		E		
	B		T	D	

Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokuaren lauki zuriak BEDATS hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Ikusi-makusi

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroan landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?

TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko atala. Soluzioak 20. orrialdean.

Labirintoa

Etxe-txolarreak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino heltzen. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.

Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu:

Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztainondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 7.

Itzala

Margotu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.



Soluzioak 20. orrialdean.

Kultur Biraren antolatzaileak: “Herriko sortzaileak lehenetsi ditugu”

Iazko arrakastaren ildotik, bigarren urtez jarraian ospatu ezingo ditugun ohiko jaien eredua irauliko duen Kultur Bira bueltan datorkigu. Asteotako eskaintzaren berri asteburu honetan etxez etxe banatuko duten liburuxkan jasoko dugu. Bezperetan antolatzaileekin bildu da NOAUA!.

Aurtengo Kultur Bira antolatzen ari diren kideetako batzuekin elkartu gara eta hainbat xehetasun eskaini dizkigute.

NOAUA! Aurtengoan Kultur Bira baino Kultur Birak izango ditugu. Argituiguzue amaierako k horren esanahi eta filosofia.

Iaz Kultur Bira sortu zen, Usurbilgo jaiak beste modu batera bizitzeko helburuarekin eta batez ere kulturgintzaren eta kulturgileen babesaren bila, baina ez genuen lortu Santixabelekin egin genuena gero beste jai batzordeek ere egitea. Pandemia garai honetan, jaiak deszentralizatzea ere egokia zelakoan, Usurbilgo eta herri eta auzoetako ordezkari guztiak bildu eta Kultur Biran parte hartzeko proposamena egin genien.

Iazko Kultur Biraren ereduan oinarritzen da aurtengoa. Jaien deszentralizazioaz gain, zertan asmatu zenuten iaz eta zer berezitasun ditu aurtengoak?

KULTUR BIRA

“Usurbilgo eta herri zein auzoetako ordezkari guztiak bildu eta Kultur Biran parte hartzeko proposamena egin genien”

Antolatzeko moduan asmatu genuela uste dugu. Orain arte eragile bakoitzak bere ekimena antolatzen zuen. Orain lortu duguna da denon artean antolatzea ekimenak. Jaien deszentralizazioan asmatu genuen. Auzoren batean aspaldiko urteetan ez da inolako ekimenik egin, Txokoalden adibidez. Esker ona adierazi ziguten, gu ere oso gustura egon ginen eta aurten ere errepikatzeko asmoa dugu. Protokoloagatik sortu genuen usurbilkultura.eus plataforma aipatu behar da. Iaz sekulako *martzianada* zirudiena, doako nahiz ordainpeko sarreren urte osoko ohiko salmenta plataforman bilakatu da. Herriaren herraminta bat da jada. Aurten bestalde, aldi berean ekimen bat baino gehiago ez ditugu antolatuko, horren ordez zikloa hilabete eta erdira luzatu dugu.

“Ohiko jaiak antolatu nahiko genituzke, baina ezingo denez, halabeharrez heldu diogu Kultur Bira antolatzeari”

NOAUA! Iaz azken unean presaka antolatu behar izan zenuten. Aurtengoa aurreikuspen gehiagorekin.

Barne antolaketa mailan salto kualitatiboa eman dugu; giza baliabideen taldea ere sortu dugu. Deia egin nahi diegu kulturgintzaren bultzadan sinesten duten herritarrei. Ekimen andana antolatzera goaz eta haien laguntza beharko dugu, muntaketa lanetarako, sarrera- irteerak kontrolatzeko… Laguntzera datorrenak sarrerarik ez du beharko.

Iazko edizioa oroitu eta girotzen hasiak zarete jada.

Iaz streaming bidez zuzenean eskaini genituen hainbat ekitaldi. Haritz Arrizabalagak grabatutako bideoak Youtubera igotzea erabaki dugu girotzen hasteko. Ameba, Odolaren Mintzoa… kontzertuan ikusgai dituzue, baita grabatu dugun spota ere.

“Kultura segurua” leloa praktikara eraman zenuten iaz. Edizio arrakastatsua zalantzarik gabe.

Oso arrakastatsua izan zen, jendea oso gustura egon zen. Konfinamendutik irten berritan inongo eredurik gabe pare bat hilabetean antolatu behar izan genuen. Geroni izan ginen formatu hau aurrera eramateko ausardia izan zuen lehenengoetariko herria. Hasieran beldurra bagenuen antolatu ahalko zen edo ez. Aurtengoan ez da zalantzarik izan. Argi genuen baietz, baina kontua zen noraino. Ohiko jaiak antolatu nahiko genituzke, baina ezingo direla ospatu garbi izanda, halabeharrez heldu diogu Kultur Bira 2021 antolatzeari.

“Sarrerak arduraz kudeatzeko eskatu nahi diegu herritarrei”

NOAUA! Aurtengoan ziurtasun gehixeago badago, ezta?
Aurten oraingoz arazo handiena ordutegiekin izan dugu. Iaz gauez egin genitzakeen ekitaldiak, duela gutxira arte 22:00ak arte, orain gauerdira arte. Baditugu arratsalde batzuk bizpahiru ekitaldirekin. Ondorioz, lehen hitzordua nahiko aurreratua genuen, dena 22:00etan amaitzeko. Orain ordutegia zabaltzeko aukera dugunez moldatu dezakegu. Aforoarekin berdin.

Aire zabalean izango dira ekitaldiak.
Gure apustua ekintza gehienak kanpoan egitea da. Usurbilgo Kultur Bira orokorraren kasuan, batetik Santixabeletan egongo diren ekintzak eta hurrengo bi asteburuetakoak bereizi behar ditugu. Uztailaren 1etik 4rako ekitaldiak Kaxkoan izango dira. Uztailaren 11 eta 18ko asteburuetan auzoetara jotzea erabaki dugu. Pisu berezia hartuko du hor adibidez Aginagak. Ekintza dezente egongo dira, baita Santuenean ere. Ekainaren 19rako antolatzen ari garen Usurbilgo Artixten Gaua aldi berean, skate parkean, Txokoalden eta Aginagan ospatuko da. Usurbilgo jaien egunetan karpa erraldoi bat jarriko dugu Udarregiko gunean. Udaletxeko plaza berreskuratuko dugu.

Iaz bezala ekitaldi estatikoak.
Bai segurtasun eta aforoagatik, bestela zaila edo ezinezkoa litzateke kontrolatzea. Aldez aurretik izena eman beharko da usurbilkultura.eus atarian sortuko dugun atalean. Hurrenkera honetan esleituko ditugu sarrerak: lehentasunezko bi ekitaldi hautatu ahalko ditu bakoitzak, gero gainerako izen emateak sartuko dira zozketan. Lekurik balego, kanpoko jendearentzako sarrerak zozketatuko lirateke. Kanpokoek lehentasunez aukeraturikoak lehenbizi, gainerako izen emateetakoak gero. Sarrerak ekitaldi bakoitza baino bi egun lehenago zozketatuko dira, Usurbilgo jaietakoak (uztailak 1-4) ekainaren 29an, denak batera. Adi egon emailari, sarrera banaketa handi bat egingo da Santixabelen bueltan. Horregatik, sarrerak arduraz kudeatzeko eskatu nahi diegu herritarrei. Sarrera egokitu eta ekitaldira joaterik ez duenak, norbaiti eman edo guri jakinarazi.

Iazko esperientzia errepikatuko dute. Aurten ordea, egitarauak gehiago iraungo du eta oparoagoa izango da.

KULTUR BIRA

“Ekitaldiak antolatzerakoan herriko sortzaileak lehenetsi ditugu, guztiei parte hartzeko mezu bana bidali genien”

Kalezarko eta Usurbilgo kultur birak elkarbiziko dira ekainaren 23tik 27ra. Nola kudeatuko dituzue bi bira hauek?
Bi egitarau ezberdin zabalduko dira. Usurbilgoa asteburu honetan, Kalezarkoa geroago. Bakoitzak bere izen emate txokoa eta sarreren zozketa propioak izango ditu usurbilkultura.eus plataforman. Web orria aukera hauetarako egokitzen ari dira.

Zer eta non aukeratua izango dugu beraz.
Betiko moduan adin tarte guztientzako. Ekitaldiak antolatzerakoan herriko sortzaileak lehenetsi ditugu, guztiei parte hartzeko mezu bana bidali genien. Uztailaren 1etik 4ra Udarregiko karpa erraldoian herriko bi talde izango ditugu; Neona eta Mihise. Bertsio Gaua berreskuratuko dugu urtebeteren ondoren, Xauxar Txosna Batzordeak antolatuta. Artixten Gaua ere forma hartzen ari da. Ez dugu argituko gune bakoitzean nortzuk parte hartuko duten. Ziur gara Usurbilek duen sorkuntza mailarekin emanaldi ederra eskainiko dutela. Adin tarteekin bezala, kultur diziplina ezberdinak tartekatu nahi izan ditugu. Formatu nahasketa berriak egin ditugu. Hala, Aginagan esaterako Iñorkiñak herriko taldearen emanaldia eta Antton Telleriaren bakarrizketa izango ditugu. Ugaitz Agirreren bakarrizketa eta herriko rock talde berri baten kontzertua. Orbeldi Dantza Taldeak hiru ekitaldi desberdin eskainiko ditu. Sortzaile gaztetxoentzat Kolore Festa pintura saioa izango dugu. Sortzaileei egin zaien gonbita egin diegu baita herriko kirolariei ere. Uztailaren 10a Herri Kirolen Eguna izango dugu; giza proba, harrijasotzaile eta aizkolariekin.

Kultur Bira sarean

Web orria:
usurbilkultura.eus

Facebook:
facebook.com/usurbilgo.kulturbira

Twitter:
twitter.com/kulturbira

Instagram:
instagram.com/kulturbira/

Youtube:
Usurbilgo Kultur Bira

E-posta:
usurbilgokulturbira@gmail.com

ZIRIMARA

Gelditu gabe jardunean

IZEN EMATEA: online ekainak 7-18

https://forms.gle/gQa4UkzFh8p7PaPE7

Eskaneatu!

Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolako ES45 3008 0259 1121 8354 1214 kontu korrontean eta agiria bidali eskolakirola@udarregi.eus helbidera

Oharrak:

·Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo Kiroldegiko bazkide izatea, izan norbanako modalitatean edo familia modalitatean.

·Udalak egoera zaurgarrian dauden familientzako diru laguntza deialdi bat atera du. Kiroldegiko abonamendurako hobariak ere baditugu. Guzti honetaz informazioa Udalaren webgunean aurki dezakezue.

ATE IREKIAK

USURBIL

- EKAINAK 1 eta 8 (16:30–18:30) HH5/LH1/LH2
- EKAINAK 3 ETA 10 (16:30–18:30) LH 3

ZUBIETA

- EKAINAK 2 eta 9 (16:30–18:00)

AGINA

- EKAINAK 1 eta 8 (16:45–18.15)

LH 1-2ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolas hezi programa
- Psikomotrizitatea
- Natur jarduerak
- Saio bereziak
- Famili planak

LH 3 - 4ko ESKAINTZA

Asteko saioak. 1 edo 2 (astearte eta ostegunak)

- Jolasak
- Kirol alternatiboak
- Talde kirolak
- Banakako kirolak
- Natur jarduerak
- Saio bereziak
- Famili planak

GELDITU GABE JARDUNEAN!

ZIRIMARA Gelditu gabe jardunean · Usurbil Udala · noaua · Udarregi IKASTOLA

Usurbil 0.0 hondakinen programa: zer hintzen eta non hago!

2017ko ekainean Usurbilgo udalbatzarrak onartu eta hurrengo 6 urteetarako bide-orria izateko helburua jasotzen du programak. Bere indarraldiaren erdia igaro denez (3 urte), bada garaia orain arte egindakoa zertan den ikusteko.

Programak jasotzen ditu 5 helburu nagusi eta horiek lortzeko 41 ekintza, 2017tik 2023ra bitartean gauzatzekoak.

Lehen helburua: 2023rako hiri hondakinen sorrera %10 murriztea, erreferentziako urtea 2015 hartuta. 2015ean, 3022 tona sortu ziren, eta, 2020an 3013 tona. Hondakin kopuru berbera, ez da batere murriztu. Ikusten denez, 2017tik 2020ra gauzatzekoak ziren ekintza garrantzitsu asko paperean gelditu dira.

Bigarren helburua: Usurbilen sorturiko bio-hondakina herrian konpostatu eta erabiltzea. 2019rako, herrian biltzen den organikoaren %40a herrian tratatu eta lortutako konposta herrian bertan erabiltzea jasotzen du programako ekintza batek. Jakina denez, herrian bildutako organiko guztia GHKri ematen zaio, eta orain arte bederen, herrian bildutakotik ez da deus bertan konposta–tzen. Herrian konpostatu eta erabiltzen den bakarra auto-konposta edo auzo-konposta egiten duten familiena da. 2015ean 693 familia ari ziren, eta 2020an 583 familia ari dira, hau da, bost urtetan 100 familia baino gehiagok utzi diote egiteari.

"2017tik 2020ra gauzatzekoak ziren ekintza garrantzitsu asko paperean gelditu dira".

ESKAERA

"Usurbil 0.0 programaren jarraipena egiteko sortu zen mahaia berriro abian jartzea eskertuko genuke"

Hirugarren helburua: 2020 urterako hiri hondakinen %90a gaika biltzea. 2020an lortutako gaikako bilketa %86a izan zen. "0 hondakin birziklagarri gaika bildu gabe" helburu egingarri eta errealista bezala jaso arren, kaleak garbitzen dabilen makina garbitzaileak, hondakinak nahasian biltzen jarraitzen du. Kasu gehienetan, hondakinak bereiztu gabe eta poltsan ateratzen duenari, alegia, dagokion zintzilikailuan beharrean lurrean uzten duenari, dohan ateratzen zaio. Industrietan biltzen den errefusean ere, hondakin birziklagarri kopurua handia dela erakusten du 2020ko martxoan egindako azterketak: %32 birziklagarria zen, gehiena bio-hondakina.

Laugarren helburua: 2023an isurtzen diren hondakin inerteak (errefusa), gehienez ere %5 materia organikoa izatea. 2020an bildutako errefusa guztiaren %11a (49 tona) bakarrik izan zen inertea. Lehen aipatu dugu, industrietan bildutako errefusa aztertu zenean, 2020ko martxoan, %22 materia organikoa zela azaltzen du azterketaren txostenak. Etxeetako errefusaren kalitateari buruz ezin dugu ezer askorik esan, azkeneko azterketa 2016an egin baitzen. "0 hondakin erraustu" jasota badago ere, Zubietako erraustegira erregaia eramateko aukera ireki zutenetik, Usurbilgo udalak bertara eramaten du errefusa guztia. "Ez diogu ez sosik ez hondakinik opa erraustegiari" zioen udal gobernuak 2017an. Honela mintzo zaigu 2021ean: "orain sortzen dugun errefusa Zubietako erraus-te-plantara eramaten da".

Bosgarren helburua: 2023an hiri hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren defizita 0 izatea. 2015ean zerbitzuaren defizita 227.000 eurokoa zen, eta 2020an defizita 338.000 eurokoa izan da. Helburura gerturatzen baino urruntzen ari gara. Defizita 0ra jaisteko gako nagusiak tratamendu kostuak murriztean daude. Bio-hondakina edo materia organikoa herrian baserri konpostaren bidez birziklatuz batetik, eta errefusa murriztu, inertizatu eta erraustegira beharrean inerteen zabortegira eramanez, kostuak asko jaitsiko lirateke.

Eta, azkenik, baina ez garrantzia gutxiagorekin, gardentasuna eta herri ekimenaren mesedetan, eskertuko genuke, Usurbil 0.0 programaren jarraipena egiteko sortu zen mahaia berriro abian jartzea, azkenekoz duela bi urte bildu zenez geroztik, geldirik baitago.

Oharra: Joan zen otsailean eskatu genizkion udalari herriko hiri hondakinekin zerikusia daukaten hainbat informazioren agiriak. Hilabete luze bat itxaroten egon eta udalaren partetik inongo erantzunik jaso ez genuenez, Eusko Jaurlaritzako Informazio Publikoaren Sarbidearen Euskal Batzordera jo behar izan genuen. Aipatu batzordeak udalari egindako errekerimenduaren ondorioz, hiru hilabete pasata eskuratu dizkigu udalak eskatutako informazioen agiriak.

Errausketaren Aurkako Mugimendua, Usurbilgo taldea

Gipuzkoako pentsiodunen martxa Usurbildik igaro zen

Gipuzkoako pentsiodunen bizikleta martxa ostiralean, arratsaldeko 18:00etan, iritsi zen Usurbilera. San Inazio kalean batu zitzaizkien hainbat usurbildar Aginaga aldetik zetozen dozenaka pentsioduni, eta San Inazio kaletik herrigunera igo eta Kale Nagusian barna ibili ondoren, frontoi atzera iritsi ziren pentsiodunak. 1.080 euroko gutxiengo pentsioa zuten aldarri.

Ostiralean iritsi zen pentsiodunen martxa Usurbilera.

Gipuzkoako hainbat eta hainbat herri pasatuta iritsi ziren Usurbilera. Larunbatean, arratsaldeko bostetan Donostiako Alderdi Ederren egingo zuten manifestazioaren mezua zabaldu eta pentsio duinak eskatzeko aldarria zabaldu zuten herrian, gutxienez 1.080 eurokoa. Berdintasunaren aldeko aldarria ere zabaldu zuten, genero arrakalarekin amaitzeko.

PENTSIODUNAK

Pentsio duinak eskatzeko aldarria zabaldu zuten, gutxienez 1.080 eurokoa

Izadi eta gurasoen egoeraren berri, Sareren eskutik

Presoen etxeratzeko bidean urriaren 23ra arte fase berri bat abiaraztera doala berri eman zuen Usurbilgo Sarek maiatzeko azken ostiralean Mikel Laboa plazan deitu zuen elkarretaratzean. Eskualdez eskualde Sarek "Ibilian-Ibilian etxerako bidean" izeneko "ekimen eta mobilizazio maratoia abiatuko du, bi astean behin eskualde bati egokituz eta hurrengoari testigua pasaz". Usurbil eta zonaldeari ekaineko datorren bi asteak egokituko zaizkio. Testuinguru honetan, "Izadi: espetxean jaiotako atzera kontaketa" dokumentala aurkeztuko dute ekainaren 7an 19:00etan Sutegin.

"Izadi: espetxean jaiotako atzera kontaketa" dokumentala ikus ahal izango da ekainaren 7an Sutegin.

Xua, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herrikideek pairatutako bidegabekeria bizi dute baita Izadik eta gurasoek ere. 3 urte betetakoan preso dituen gurasoengandik bereizi dezakete. Usurbilgo Sarek kultur etxera ekarriko digu errealitate hau.

SARE USURBIL

Dokumental baten proiekzioa antolatu dute, ekainaren 7an Sutegin

Gizartearen inplikazioa ezinbestekotzat jotzen du Usurbilgo Sarek eta abiatzera doazen dinamika berri honetan parte hartzera deitu dute. Presoen "komunikazio intimoak, familiarrak eta bizikidetzakoak" ezarri gabe daudenean oraindik, larriki gaixo diren 19 presok espetxean jarraitzen dutenean, presoen %28a dagoenean "0 kilometroan", "ezin diogu une honi ihes egiten utzi salbuespenezko espetxe-politika aldatu nahi badugu".

Udaberri Astea Zubietan

Zubieta udaberriko ospakizunetan murgiltzera doa. Ibilbide luzea duen zikloa antolatu du bertako guraso elkarteak ekainaren 1etik 11ra.

Ekainak 1, asteartea
"Kontukantoi" Zubietan:
- 16:45 HH-koei zuzenduriko ipuin kontaketa saioa.
- 17:30 LH-koei zuzenduriko ipuin kontaketa saioa.

Ekainak 3, osteguna
- 17:00 Herri kirolen ginkana.
- 18:00 Komiki tailerra.

Ekainak 4, ostirala
- 17:00 Errebote erakustaldia.

Ekainak 8, asteartea
Dantza erakustaldia:
- 17:00 Baleta eta dantza.
- 18:00 Plaza dantza.

Ekainak 10, osteguna
- 17:00 Magia ikuskizuna.

Ekainak 11, ostirala
Antzerki eguna:
- 17:30 Antzerkia LH 1-2.
- 18:15 Antzerkia LH 4-5-6.

Oharrak:
- Ekintzak errebote plazan edo frontoian egingo dira, eguraldiaren arabera.
- Ekitaldietako edukiera: 100 lagunentzako lekua.
- Izen ematea: ekitaldi bakoitza baino bi egun lehenago beranduenez, doan, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Zubietako Guraso Elkartea.

Jarduera ugari antolatu dituzte datozen egunetarako. Argazkia: Zubietako Eskola Txikia.

Ohorezko Bigarren Mailarako txartela jokoan da

Asteburu honetan Usurbil KE-ko senior neskek Ohorezko Bigarren Mailarako txartela eskuratzeko aukera izango dute. Euskadiko txapeldunek, Estatu Mailako fasea jokatuko dute Iruñean ostiraletik hasi eta igandera bitarte. Lau taldek osatutako B multzoaren barnean arituko dira usurbildarrak Nafarroako Anaitasuna, Aragoiko A.D Jota eta Kantabriako Lieberbank BM. Peredaren aurka.

Lau taldek osatutako multzoan lehiatuko dira Nafarroako Anaitasuna, Aragoiko A.D Jota eta Kantabriako Lieberbank BM Peredaren aurka.

Ostiralean izango du Urbil-Usurbil KE taldeak lehen partida 18:00etan Aragoiko taldearen aurka. Larunbatean berriz, talde kantabriarrari aurre egin beharko dio 20:15ean, eta azkenik, igandean, Nafarroako Anaitasunaren aurka neurtuko ditu indarrak 12:30ean.

Sei sektoretan banatuta egongo da txapelketa, eta parte hartuko duten 24 taldeetatik seik baino ez dute lortuko Bigarren Mailarako igoera. Multzo bakoitzeko garaileak lortuko du igoera, eta beraz, garaipen hori lortzeko B multzoko lehena izatea lortu beharko du Urbil-Usurbil KE taldeak.

SENIOR NESKAK

Ostiralean izango dute lehen partida Aragoiko taldearen aurka

Usurbilek gehiagotan ere lortu izan du igoera, eta urtebetez aritu ziren Bigarren Mailan 2016-2017 denboraldian. Igoera gehiagotan ere lortu izan dute, baina arazo ekonomikoak tarteko, ez dute gehiagotan aukerarik izan Ohorezko Bigarren Mailan aritzeko. Aurten, igoera lortuz gero, berriz ere maila horretan lehiatuko dira datorren denboraldian, hala adierazi die klubeko zuzendaritzak jokalariei.

Eskubaloiko kadete mutilek Katalunian jokatuko dute asteburu honetan

Granollersen galdu ezineko zita dute asteburuan Usurbil KEko kadete mutilek. Euskadi mailan hirugarren postua erdietsi zuten, eta horrek Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera eman zien. Asteburuan izango dute beren maila erakusteko aukera Katalunian, ostiraletik igandera bitarte.

Asteburuan izango dute beren maila erakusteko aukera Granollersen, ostiraletik igandera bitarte.

Zortzi multzotan banatutako txapelketan, Espainiako 32 talderik onenek hartuko dute parte, eta hirugarren multzoan arituko dira usurbildarrak Kataluniako KH7-BM Granollers, Valentziako BM Mislata eta Nafarroako Anaitasuna taldeen aurka. Zonaldekako faseari dagokionez, partida horiek egokitu zaizkio herriko taldeari. Lehenik, etxeko taldearen aurka aritu beharko dute, KH7-BM Granollersen aurka, alegia; hori ostiralean izango da 20:00etan. Larunbatean, nafarrei aurrei egin beharko die talde usurbildarrak 16:00etan, eta amaitzeko, igandean neurtuko dituzte indarrak valentziarren aurka 11:30ean.

32 taldeentzat 8 txartel egongo dira jokoan finalean parte hartu ahal izateko. Multzo bakoitzeko irabazleek baino ez dute aukera izango finalera pasatzeko. Ekainaren 16tik 20ra bitartean jokatuko dira finaleko partidak, eta talde garailea izendatuko dute 2020/2021 denboraldiko klubik onena.

Kudeatzaile berdinek jarraituko dute Artzabalgo tabernan eta Eguneko Zentroan

Artzabalgo tabernaren eta Kalezarko Puntapax Eguneko Zentroaren kudeaketa kontratuak urtebetez luzatzea onartu zuen udalbatzak, maiatzaren 27ko osoko bilkuran.

Orain arteko kudeatzaileek segiko dute lanean Gure Pakea Elkarteak Artzabalen duen egoitzako tabernan eta Kalezarren, Haur Eskolaren eraikin berean kokatua dagoen Puntapax Eguneko Zentroan. Beste 12 hilabetez kontratua luzatzea erabaki diote udal taldeek iragan asteko osoko bilkuran, Artzabalgo tabernako kudeatzaileari. 2016an sinatu zuen bost urterako esleipen kontratua, urtez urte beste 5 urtez luzatzeko aukerarekin. Lehen luzapena aplikatu diote kontratuari.

Beste hainbeste Puntapax Eguneko Zentroaren kasuan ere. Orain arteko kudeatzaile berak izango ditu lanean, GSR enpresakoak. Kasu honetan 2018ko otsailaren 14an hiru urterako esleipen kontratua sinatu zuten, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Lehen luzapena aplikatzea adostu dute.

Iñaki Arrillaga oriotarraren koadroak topatuko dituzue Artzabalen.

ARTZABALGO ERAKUSKETA BERRIA

"Margoak ordenagailuz landuta daude, teknologia berrienak erabiliz"

Erakusketa berria Artzabalen

Iñaki Arrillaga oriotarraren erakusketatxoa ikusteko aukera izango duzue asteotan Artzabalgo tabernan. "Arraunean munduan zehar" izeneko bildumak, "arrauneko ilustrazioak, estilo minimalista batez eginak eta munduko toki ezagunetan kokatuak" biltzen ditu. Sortzaileak zehaztu duenez, "ordenagailuz landuta daude, teknologia berrienak erabiliz. Aurpegiak eta gorputzak era minimalistean eginak dira: irudi sinpleak erakusten dituzte eta asko zaintzen dute gorputzaren kokapena eta postura, arraunketaren edertasuna eta gogortasuna islatzeko". Ikusgai eta salgai izango dituzue asteotan.

Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaz, datorren Jakin Jardunaldian

Usurbilen egingo diren jardunaldiek abiapuntu hau izango dute: "Krisi ekologiko, klimatiko eta sozialaren erdian: desazkundea beste biderik bada?". Datorkigunaz, desazkundearen aurrean egin daitekeenaz, "zer alternatiba ditugu abian Euskal Herrian?". Hortxe lehen galderatik abiatuta hausnartu nahi duten zioa.

Uztailaren 15ean eta 16an, Udarregi ikastolan

Uztailaren 15ean eta 16an ospatuko dira jardunaldiok Udarregi Ikastolan. Matrikulazio epea zabalik dute. Informazio gehiago ueu.eus atarian eskura daiteke.

Jakin Jardunaldiak Udarregi ikastolan egingo dira.

Zirimaran matrikulatzeko garaia da

Ekainaren 7an hasi eta ekainaren 18an amaituko da izen-ematea.

Ate irekiak

Usurbilen, Udarregi kanpoaldean:

- Ekainak 1 eta ekainak 8: 16:30-18:30 HH5/LH1/LH2.
- Ekainak 3 eta ekainak 10: 16:30-18:30 LH 3.

Zubietan, frontoian:

- Ekainak 2 eta ekainak 9: 16:30-18:00.

Aginagan, frontoian:

- Ekainak 1 eta ekainak 8: 16:45-18:15.

Plazan Bazan, 12/13 orrialdeetako soluzioak



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonezko bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Etxe bateko altzariak saltzen ditut. 600 360 809.

Josteko remalladora Donna 800 salgai. Berria dago, bizpahiru aldiz erabilia soilik. Prezioa: 270 euro. 652 702 237 (Zorione).

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bouchrahajar@outlook.com

Giltza batzuk galdu dira Zumartegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitez harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitzeko egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Zorionak Maren!
Maiatzaren 29an
7 urte bete zenituen.
Muxu handi bat etxekoen
eta familiaren partez.

Heriotzak

Praxku Alkorta Zabala
Maiatzaren
26an hil zen,
98 urterekin

Goardiako farmaziak

Osteguna	**03**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala	**04**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata	**05**	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea	**06**	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena	**07**	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea	**08**	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena	**09**	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Osteguna	**10**	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala	**11**	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata	**12**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea	**13**	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda ekaina

04 ostirala

- **Ikastaroa: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak"** 15:30-18:30 Potxoenean.
- **Zubieta Udaberri Astean: errebote erakustaldia** 17:00 Errebote plazan (euria egingo balu, frontoian).

05 larunbata

- **Bilera Kalezarren** 11:00etan Haur Eskolan. Hirigintza gaiak landuko dira. Deitzailea: Usurbilgo Udala.
- **Kontzertua: Basabi eta Kimu** 19:00etan Sutegin. Sarrerak 10 eurotan eskuragarri, usurbilkultura.eus atarian.

06 igandea

"Bertsoaren harria" hitzaldia eta bertso-saioa. Partehartzaileak: Koldo Izagirre idazlea, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak. 18:00etatik aurrera Sutegin. Izen ematea: ekainaren 4ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.

Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus Sutegin arituko dira igande honetan

Bertsoaren harria proiektuak gure ondare diren artelanak ezagutaraztea du helburu. Igande honetako ikuskizunean, Koldo Izagirre idazleak Udarregiri eskainitako eskulturaz jardungo du eta, horretaz gain, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak gidatuko ditu saio librean. Sutegiko saiora joateko izena eman behar da aldez aurretik, usurbilkultura.eus atarian.

Sarrera, doan

- Ekainak 6 igandea.
- 18:00etan, Sutegin.
- Izen ematea: ekainaren 4ra arte doan, usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Bertsolariek Koldo Izagirreren *Bertsoaren harria* (Lanku) liburua izango dute abiapuntu.

"Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak"

Alkartasuna Kooperatibaren ikastaroko saio berria ostiral honetan egingo da, 15:30etik 18:30era Potxoenean. Aitor Etxeandiak gidatuko duen hitzorduan inausketa-praktikak egingo dituzte. Izen-ematea doan da baina inskripzioa osatu behar da aurretik:
usurbilkultura.eus
alkartasuna.eus
943 361 114.

Txalaparta kontzertua, Basabi eta Kimuren eskutik

Artistetako baten osasun-arazoak tarteko, maiatzaren 15ean egitekoa zen kontzertua atzeratu egin behar izan zuten. Larunbat honetan egingo da Basabi eta Kimu musika taldeen emanaldia, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Orduko hartan sarrera eskuratu zutenek joateko aukera izango dute. Gainontzean, oraindik badira sarrerak salgai, usurbilkultura.eus atarian.

Datozenak

Kalezartarrekin bilera larunbatean

Udala kalezartarrekin biltzekoa da larunbatean (ekainak 5) goizeko 11:00etan Haur Eskolan, auzotarrek eskatuta. Hirigintza gaiak hartuko dituzte ahotan.

"Usurbil astindu" zikloa

Ezker abertzaleko komunitatea saretu eta indartzeko Sortuk eta Ernaik antolaturiko "Usurbil astindu" zikloaren hurrengo hitzorduak asteotan:

Ekainak 12, larunbata

- 11:00 "Independentziaren aldeko indarrak batzen" mahai-ingurua Sutegin.
- Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Izen ematea aurrez helbide honetan:
https://labur.eus/ce00V

Ikastaroak KzGunean

Ekainak 15-24, 16:00-18:00.

- "Kudeatu Google aplikazioekin".

Ekainak 25-30, 16:00-18:00.

- "Facebook. Konektatu lagun eta senideekin".

Informazioa: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Edertu zaitez!

Ivan ESTETIKA

Ballancer®
presoterapia

Kliniko eta zientifikoki irtenbide frogatua mediku eta estetika arloetarako modaltzen den erantzuna

Munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA

Artzabal baserria 688 75 96 96

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

ileapaindegi mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Estetika gidan parte hartzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus

UrbilBox

DESKONTUA DUTEN PLANAK

Zuretzako edo oparitzeko

Deskargatu doan Urbil App-a eta eskuratu sorta hau eta beste hainbat abantaila. Kontsultatu gure lokaletako deskontu guztiak www.urbil.es webgunean.

BLOG

urbil

urbil.es